

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2023KO
EKAINAREN 30A
[BIDASOA.HITZA.EUS](https://www.bidasoa.hitza.eus)
[OARSOALDEA.HITZA.EUS](https://www.oarsoalde.a.hitza.eus)
872. ZENBAKIA

GOGOA, ETA EMAITZAK

Asteburuan hasiko dira arrauneko Eusko Label eta EuskoTren Ligak. Horrela, liga den-denak izango dira martxan. Oarso Bidasoko klubek gogoia emaitzetara eraman nahi dute // 3-24

Antxotarrak,
San Fermin
Festak noiz
hasi zain // 25-28

Trintxerpe-Illunbe:
lehorrekoa konpondu
nahian uretan segitzeko // 6-7



	12 UZTAILA	13 UZTAILA	14 UZTAILA	15 UZTAILA	16 UZTAILA
KIROL KAIA	12:30 MALWINA MASTERNAK 4TET	12:30 BLUE MATTER	12:30 FS THE JAZZ 5TET	12:30 BAJO MI VOZ FEAT MARC PINYOL	BOKALE BRASS BAND
HARRESI-LANDA	17:00 FAMIJAZZ (KONTZERTUA FAMILIAN)	17:00 LEYRE PERRINO TRIO	17:00 NHIL	17:00 FAMIJAZZ (KONTZERTUA FAMILIAN)	IBILBIDEA
OBISPO PLAZA	18:00 BAJO MI VOZ DUO	18:00 FRAN SERRANO TRIO	18:00 BLUE MATTER	18:00 NHIL	11:45 JAIZKIBEL HOTELA
ARMA PLAZA	19:00 HIRUKI TRIO	19:00 NHIL	19:00 CHOBY SCHEUFLER TRIO BOSSA N' JAZZ	19:00 BLUE MATTER	12:05 OBISPO PLAZA
GIPUZKOA PLAZA WOMEN IN JAZZ	20:00 VOICES FOR THE DUKE	20:00 ITZIAR YAGÜE	20:00 BILLIE SINGS SOUL	20:00 ROSARIO LA TREMENDITA	12:45 UBILLA KALEA
ITSAS ETXEA AUDITORIUMA	(KONTZERTUA FAMILIAN) 22:00 JOSETE ORDÓÑEZ GITARRA, KOMIKIA ETA ZINE BELTZA	20:30 CARMEN SOUZA	20:30 GOIZARGI GOSPEL CHOIR	20:30 KSENIA PARKHATSKAYA 5TET	13:05 ARMA PLAZA
SARRERA 10€. 2 KONTZERTU EGUNEKO		22:30 TAKUYA KURODA	22:30 JUDITH HILL	22:30 CACO SENANTE	13:25 GIPUZKOA PLAZA
UBILLA KALEA PLAZA DINE Y FAMILIA			22:00 DOKUMENTALA: LA BUSQUEDA: PACO DE LUCIA	22:00 FILMA: WHIPLASH	13:45 SAN PEDRO KALEA
KASINO ZAHARRA CASA		23:00 SYRUP HOP 6TET DJ (SOUL Y R&B)	23:00 SYRUP HOP 6TET DJ (80s Y 90s)	23:00 SYRUP HOP 6TET DJ (DISCO MUSIKA)	14:05 BUTROI PASEALEKUA
JAIZKIBEL JAZZ		21:30 MALWINA MASTERNAK 4TET	21:30 MALWINA MASTERNAK 4TET	21:30 MALWINA MASTERNAK 4TET	14:25 KIROL KAIA
					17:30 LISI & V.O.S 4TET

UZTAILAK 10 - 16 OLIVER SAENZEN "FEEDBACK" ERAKUSKETA

HONDARRIBIAN JAZZ 2023

Antolatzailea

Babesleak

Laguntzaileak



• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA • 2023ko ekainaren 30a

Oiartzualdeko Hedabideak S.L. ko kideak:

Oiartzun Irratia
 Orratz! Kultur Elkartea
 Antxeta Irratia
 Bertako Hedabideak
 Pausu media
 Lau Haizetara

eta Oarsoaldeko beste 53 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak.
Udalak: Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia.

**Argitaratzailea:**

Oiartzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petrirena.

Produkzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:Irun kalea 8 behea,
20100 Errenteria-Orereta.**Telefonoa:**

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Webguneak:

bidasoa.hitza.eus
 oarsoaldea.hitza.eus
 oarsobidasoa.hitza.eus

Publizitatea:**Telefonoa:**

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua
 (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):

943 30 30 35**harpidetza@hitza.eus**

oarsobidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
bidasoa.hitza.eus

IRUDIA

Koloreak

Koloreek garrantzia dute. Batez ere, hemengo udan. Zehazki, arraun denboraldia bitartean. Kolore bakoitza herri bat da, izateko eta egiteko era bat, nortasun toki-koena adierazteko modu bat. Historiaren zati bat aldi berean. Arrauna, Oarsoaldearen eta Bidasoaren historiaren zati da. Ortzadarraren banderako sexu askapenerako kolore eta desio guztiekin bezala, arraunean ere nork bere kolorea aukeratu eta defendatuko du.

Datozen orrialdeetan, aurten arrauneko kolore horien atzean zer eta nor dagoen. HITZA

Detailerik galdu ez dezaten

Arraunean erabiltzen diren materialen gainean hitz egiterakoan, gutxitan aipatzen den elementua da lemazainen entzungailua. Ezinbestekoa ez den arren, aukeran denek nahi izaten dute.

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

Arraunaren munduko xehetasunak gero eta gehiago ezagutzen dira. Teknologiaren bidez ere informazio ugari dago denen eskura. Telebistako irudiek inoiz baino kalitate handiagoa dute eta arraunlarien hurbileko irudiak eskaintzea bermatzen du horrek. Hartara, garai

batean oharkabean igaroko liratekeen detailerik jabetu daitezke arraunzaleak.

Kirolariek, arraunaz gain, beste hainbat material ontziratu behar izaten dituzte. Irudietatik, estroboa, esparatrapua, edo palada kontagailua ikus daitezke, akaso. Baina bada beste aparailu bat apenas atzematen dena: patroiek dara-

bilten entzungailu edo *pinganilloa*. Ezinbestekoa ez den arren, gutxitan ikus daiteke patroiren bat gailu hori gabe. Ezker edo eskuin belarrian eramaten duten aparailu txikia da, eta sakelako telefono baten funtzioa du.

Arraunlariak itsasoratzen direnean, beraz, ez daude bakarrik. Entrenatzailea edo taldeko beste pertsona garrantzitsuren bat izaten dute alboan edo belarri aldean. Estropada eremutik kanpo ikusten den informazioa eskaintzen diete arraunlariari. Egun, informazio ugari azaltzen da telebistan: GPSaren datuak (zein kaletan doazen jakiteko), kalerik azkarrenak zeintzuk diren, haizearen norabidea, traineruen arteko distantzia edota aurkarietako segundo aldea. Datu horiek guztiak aurikular bidez jasotzen ditu patroiak.

Ontzia gidatzea, erritmoa markatzea, argibideak ematea edota entrenatzaileari entzutea... dena batera egitea ez da lan erraza izaten. Hala onartu dute Ioseba Amunarrizek Hondarribiko patroiak, Zuriñe Alberdik Hibaikako lemazainak eta San Juango Ander Egañak. «Zaila da, bai. Askotan berak [Mikel Orbañanosek] hitz egiten duenean isildu egiten naiz entzuteko. Ondo etortzen da bartzuetan isiltzea. Beraiek [arraunlariak] badakite entrenatzailea kanpotik hitz egiten ari dela, eta hori, denentzako mezu da», kontatu du Amunarrizek. Alberdik hasieran entzungailua eramatea arraroa egin zitzaiola azaldu du, baina azkenean ohitu egin da. Egañak, bestalde, elementu berri bat mahaigaineratu du: haizea. «Haize asko baldin badago entzungailuan sartzen zaizu, eta ez duzu asko entzuten. Orduan bai zaila izaten dela dena batera egitea».

Entzungailua, gainera, «segurtasuna» eman dezakeen erreminta da. «Zerbait gertatzen bada, palen ukitu bat, bestearen kalean sartzea edo horrelakoak, erreminta bat duzu jakiteko nondik zozzen denbora guztian», azaldu du Amunarrizek. Aurikularrik gabe uretaratzeak, baina, ez du hondarribiarra urduritzen. Hibaikako lemazaina ere iritzi berekoa da: «Informazio aldetik uste dut baietz, eragina izango lukeela, baina azkenean denak ateratzen gara gure %100

Matteo

JATETXEA

Egunero irekita.
Bazkariak 13:00etatik aurrera.
Taberna 11:00etan irekitzen dugu.

www.amoralpuchero.com

📞 943 49 11 94
📱 667 713 584

lurrita bidea, 2 behea. Ugaldetxo.
20180 Oiartzun
Tel.: 943 49 11 94
info@amoralpuchero.com





KABALA

etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak

943 53 57 51 / 605 76 52 14
Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com

ETXERAKO ZERBITZUA

AUTOZERBITZU GARRISAILUA

ILEAPAINDEGIA ALPERTEKO HITZORRIA



Hibaikako Zuriñe Alberdik eskuin belarran eramaten du 'pinganilloa'. HITZA

ematera eta informazio hori, nolabait, lagungarria da. Zenbaitetan entrenatzailearen lasaitasunerako ere izaten da». *Erreka*-ren lemazainak badu esperientzia entzungailurik gabe lehiatzen; izan ere, behin baino gehiagotan itzali edo deia moztu zaiola azaldu du. «Horrelakoetan antzerki pixka bat egin izan dut, ezer pasa ez balitz bezala. Tentsio

pixka bat senti daiteke, baina azkenean zure lehiakideak txanda berean baldin badituzu ez da hainbesterako, ikusten dituzulako».

Entzungailuaren beste aldean dagoenak ere paper garrantzitsua izaten du. Argibideak ematerako garaian jarrera lasaia izatea eskertzen dute hirurek. Amunarriz: «Estropada garaian pultsa-

zio altuak eta nerbioak aztoratzen dira. Gauzak azkar esaten badituzu ez da ezer ulertzen. Mezua lasai eta garbi esan behar da». Egañak aitortu du entzungailua itzaltzera heldu zela behin batean: «Beste talde batean nengoenean bagenuen oso urduri jartzen zen entrenatzaile bat. Behin baino gehiagotan esan behar izan nion lasaitzeko, ez bainuen ulertzen. Baina gutxitan gertatzen da hori. Entre-

Entrenatzailearen jarrerak eragina izan dezake patroiarengan

natzailearen lehenengo urtea ez bada, egoeraz kontziente izaten dira». Alberdik, bestalde, barre urduri batekin erantzun dio galderari. Izan ere, inoiz kasu egiteari utzi diola aitortu du. «Ulertzen dut kanpotik urduritasuna gestionatzea zaila izan daitekeela, baina azkenean mezu hori zuk duzun urduritasun puntu horrekin gestionatu behar duzu, arraunlariei ez transmititzeko. Orduan, egia da ez dudala inoiz deia moztu, baina pixka bat deskonektatu edo bolumena jaitsi, jaitsi izan dut».

Ezin dena kontrolpean izan

Estropada eremu guztiak ez dira berdinak, eta zenbaitetan konexio arazoak izaten dira. Donostiako badian, esaterako, Kontxako estropadan, Aquariumetik igarotzerakoan estaldura joan egiten dela aipatu du Amunarrizek. Hibaikakok, berriz, konturatu gabe bizpahirutan garbigailuan sartu zituela kontatu du. ✕

JAKIN S.L.

AHOLKULARITZA
ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO
GESTIOAK

→ www.jakinservicios.com ←

Morrongilleta 11-13. 270 Posta kutxa . Errenteria. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32. Faxa: 943 51 60 04

Uretan jarraitu nahi du Illunbek

Kinka larrian jarraitzen du Trintxerpe-Illunbe Arraun Elkarteak bere jarduna hartuko duen egoitza bila. Konponbiderako «borondatea» sumatu dute udal aldaketarekin. Presazko irtenbidea behar dute.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA PASAIA

Aurten ez da uretan izango Trintxerpe-Illunbe Arraun Elkarteko seniorren ontzia. Derrigorrean hartu behar izan dute erabakia. Izan ere, portuan duen egoitza eraitsi nahi du Pasaiaiko Portu Agintaritzak, eremu horretan trenbide bat egiteko, eta erabaki horrek, kluba desagertzeko arriskuan jarri du, ez baitu bere jarduna eta material guztia jasotzeko bestelako egoitza alternatibarik. Iazko irailean esan zieten lokala

eraitsiko zietela. Ordutik ez dute berririk, baina beldur dira edozein unetan jaso dezaketelako Portu Agintaritzaren deia lokala berehala utzi behar dutela esanez. Ez dute nora jo, ordea.

Ezjakintasun egoera horren harira erabaki zuten ez zutela KAE2 Ligan parte hartuko. Beteranoen trainerua entrenatzen eta estropadetan parte hartzen ari da, eta aste honetan bertan bukatuko dituzte batel eta trainerilla entrenamenduak gaztetxoek. Joan den hilabetean



Pasa den maiatzean elkarretratzea egin zuten hamarnaka herritarrek arraun taldearen beharrak aseko dituen irtenbide bat eskatzeko udalari. Ikerne Zarate

kalera atera ziren, eta hamarnaka herritar eta eragileren babesas jaso zuten, udalari irtenbide egokia eskatzeko.

Ordutik izan dira aldaketak. Udal hauteskundeak izan dira tartean, eta kolore aldaketa heldu da horiekin Pasaiaiko Udalera; EH Bildu da alkatetzan orain, Elkarrekin Podemos-Aliantza Berdearen babesarekin. Elkarriketak egingo ditu berriro Trintxerpe-Illunbe klubak udalarekin Jon Gonzalez zuzendaritzako ki-deak azaldu duenez: «Egungo zinegotzi bat gerturatu zitzaidan kalean, eta hark esan zidan bera izango dela Kirol zinegotzia. Esan zidan ere euren asmoa kirol eragile guztiekin biltzea dela. Gure elkarteak presazko irtenbidea behar duela gogorarazi nion, eta borondatea behintzat badute konpontzeko eta aurrera ateratzeko, aurreko udalak erakutsi ez zuena».

Egoitza, Trintxerpen

Marra gorri bat du Trintxerpe-Illunbek, Trintxerpen nahi du egoitza, «ez gaude prest barrutitik ateratzeko, gure arraun kluba deslokalizatzeko». Mahai gainean

Estetika mundua zure esku

www.naiuestetika.com

info@naiuestetika.com

f naiuestetikapagina

@naiuestetika

.....

Astelehenetik ostiralera:
10:00-20:00

Larunbata: 10:00-13:30

naiu
estetika

89m²-ko espazio atsegin bat tratu guztiz pertsonalizatuarekin

Arrandegi kalea 4, 20110 Pasaia (trintxerpe)

943 53 84 24 656 73 19 47



«Pentsatu izan dugu Trintxerpe-Illunbe Arraun Elkarteak desagertzea nahi zutela. Ez dago bestela ulertzerik halakoak proposatzea. Bestalde, Portu Agintaritzako zuzendaritzari eskatu nahi diogu guztienez gurekin bil dadila».

Marra gorri bat du arraun klubak: egoitza Trintxerpen nahi du

Datorren denboraldian batel lehiaketan aritzeko aukeraz galdetuta, ontziren bat ateratzen saiatuko direla esan du Gonzalezek, «berez zaila bada jendea gerturatzea arraunera, halako egoera batean atera kontuak».

Herritarren babesa

Babesa sentitu dute, handia, herritarren eta eragileen aldetik. Baina Pasaiako beste bi arraun klubak aldetik —San Juan eta San Pedro— ez dutela babesik sumatu esan du penatuta: «Harremantana ere ez dira jarri gurekin, elkartasuna adierazteko. Modu batera edo bestera beste arraun elkarte batzuen jaso dugu, Hibaikarena kasu. Haiei ere kaltetuko die erabakiak, ontziak ere badituztelako lokal berean».

Lanean jarraitzeko asmoa eta gogoia dutela esan du Gonzalezek. «Trintxerpen arraun jarraitu nahi dugu, horretarako irtenbide bat behar dugu, eta Trintxerpe barruan izan behar du. Beste aukerarik ez dugu ikusten, bertako elkarteak gara eta bertan jarraitu nahi dugu, Trintxerpeko arrauna bermatzen». ✕

aurretik eskainitako bi aukerak mantendu ditu arraun klubak, uste baitu egin-garriak direla bata edo bestea, eta bermatzen dutela, gainera, klubaren bizi-raupena: proiektuetako bat pantalan ondoan planteatu du zuzendaritzak; bestea, nautika azpian. Eraikinik ez dago, eta behin-behineko azpiegitura sortzea eskatuko luke bietako edozeinek. Elkarteak bizi duen kinka larriarekin bukatuko luke bi proiektu horietakoren bat onartzeak.

KAE2 Ligan ez aritzeko erabakia egokiena izan dela, egoera kontuan hartuta, uste du Gonzalezek: «Denboraldia aurrera ateratzeko 20.000 euroko inbertsioa eskatzen du. Bizi dugun ezjakinta-

sun egoeran ezin genuen zorpetu. Ez dugu idatzizko ezer, eta ez dakigu noiz heldu daitekeen lokala husteko agindua, eraitsi behar dutelako. Erabaki egokiena hartu genuen». Argi dute ez dela euren esku irtenbidea, «besteen esku dago».

Haserrearen agerian utzi du Gonzalezek ez dutelako aurreko udal agintarien aldetik borondaterik, ezta «irtenbide erreale» bat ere jaso: «Aurreko alkateak, Donibaneko kiroldegia eskaini zigun irtenbide gisa. Pentsa non gelditzen den uretatik hura. Adarra jotzen aritu dira, hori ez da planteamendu serioa. Uretatik gertu dagoen lokala behar dugu».

Haserreari, tristura ere gehitu dio arraun elkarteko zuzendaritzako kideak.

CIFP – BLAS DE LEZO – LHII



OINARRIZKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

BOGA!

Eman izena telefono honetara deituz: 943 40 41 70
blasdelezo@pasaiaeskola.net



“Arraunlariak akonpainatuta sentitu behar dira”

RAUL FRUCTUOSO FISIOA

Hiru urte daramatza hondarribiarrak Orioko Arraun Elkartean. Emakumezkoen zein gizonezkoen taldeetako arraunlariak artatzen ditu. Lesioak ekiditeko modurik onena asteroko jarraipena egitea dela uste du.

ANE MENDIZABAL SARRIEGI HONDARRIBIA

2023an Mendelu auzoan zabaldu zuen Fructuosok bere fisioterapia kontsulta propioa. Aurretik, baina, beste enpresa baten bitartez artatzen zituen arraunlariak. Oso kontent agertu da elkartean egiten duen lanarekin.

Zein da Orioko Arraun Taldearekin egiten duzun lana?

Aldatzen joan da. Lehenengo urtean arraunlariak zuzenean etortzen ziren


gure zentrora, puntualki, beharra zutenean. Bigarren urtetik aurrera eredu aldatu egin zen. Astean bi edo hiru egunetan joaten hasi nintzen Orioko elkartera.

Aldea sumatu duzu?

Ikusi dudana aldaketa izan da jarraipen hobe egitea. Arraunlariak beren bisitza dute. Jakina den bezala ez da kirol profesionala, eta, beraz, arraunlariak aparteko lanak izaten dituzte. Astero elkartean egoterakoan, nolabait, oharkabean gera litezkeen lesioak edo gainkarga txikiak garaz arta ditzakegu.

Hortaz, uste duzu jarraipen zehatza egitea beharrezkoa dela?

Bai, uste dut garrantzitsua dela elkartean egotea eta arraunlariak zuzenean entzutea, egunerokotasunean dituzten sentazioak jaso, molestia txikiez jabetu... Azken batean, beren egunerokotasunean egotea. Era horretan, lan-karga edo bolumen gehiago duten egunak zeintzuk diren jakiten duzu eta medikuarekin, entrenatzaileekin eta prestatzailearekin kontaktuan zaude.



Orioko emakumeek oparitutako mailota du zintzilik haren zentroan. Iaz EuskoTren Liga eta Kontxa irabazi zituzten. A. Mendizabal

Lesioak momentuan artatzen dituzu, baina zure lana garrantzitsua da prebentziorako ere bai, ezta?

Bai, lesioak artatzen ditut, baina batez ere lesiorik ez dutenekin lan egiten dut. Normalean, arraunlariak entrenatzen jarraitzen dute. Batez ere gerrialdeko, bizkarraldeko edo, nesken kasuan, zerbikalletako edo sorbaldako molestiaren bat izaten dute. Horiek garaz hartzen badi-tugu, ondoren, lesio bilakatzea ekiditen dugu.

Arraunlarien oso gainean zaude, beraz. Estropada guztietara joaten zara aldi berean. Estropaden aurretik masajea ematea ona al da?

Egia esan, ideia hori ez da nirea izan. Elkartera heldu nintzenean dagoeneko egiten zuten zerbait zen. Interesgarria dela uste dut, lehen aipatu bezala arraunlarien egunerokotasunean zaudelako, baina, kasu honetan, alderdi psikologikoan. Zintzoki, estropadaren alde aurreko lana ez da ezinbestekoa. Azken batean masaje txiki bat ematen diet. Baina interesgarria iruditzen zaidana da



lesionaturik zeudenean zaindu zintuen pertsona hori gertu sentitzen dutela. Bi edo hiru gauzatzorekin kirolariak uretara joateko prest daudela sentitzen dute.

Masajea obsesio bihurtzeko arriskua dago?

Arriskua badago. Baina zorionez, eredu honekin lanean hasi nintzenean taldeko medikuak, kirolariak nola tratatu jakiteko, zenbait aholku eman zizkidan. Eta gogoan dut arrisku honi buruz hitz egin zidala. Esan zidan: «Mimatu egin behar dira, baina ez gehiegi». Akonpainamendua sentitu behar dute, ezin dira terapiaren menpeko bihurtu. Hortaz, aholkuari segika, beharrezkoak ez diren zitak ondo kudeatzen saiatzen gara medi-

kuen, entrenatzaileen eta nire arteko komunikazioaren bidez.

Zein dira orain artean ikusi dituzun lesio edo ginkarga ohikoenak?

Batez ere, atzealdeko tentsio muskularrak izaten dira. Azken batean, hori delako gehien erabiltzen duten zonaldea. Gero ere, bitxia iruditzen zait postuz aldatzen dituztenean gluteoen inguruan ginkargak izateko tendentzia dagoela. Bestalde, emakumezkoen kasuan trainerua gizezkoen berdina denez, altuerak ez daude berdin egokituta, eta orokorrean, baxuagoak direnez, gizezkoen baino keinu deserosoagoa egin behar izaten dute. Arrauna altuago ekarri behar dute. Hortaz, emakumezkoen

taldean lepoko edota sorbaldako ginkargak ohikoak izaten dira. Gainera, beren eskuak txikiagoak direnez, nahiz eta neurri batean heldulekua egokitu daitekeen, arraunak esku handiagoentzako pentsatuta daude. Horrenbestez, besurreetako ginkarga ere izaten dute sarri. Gizezkoen kasuan, gerrialdea, gluteoa edota psosa izaten dira artatu beharrezkoak.

Neguko edo udako entrenamenduen arabera ere lesio edo ginkargak aldatu egiten dira?

Bai. Entrenamenduak zenbat eta luzeagoak izan, orduan eta gehiago sumatzen dut muskularki ez dutela errekuiperatzeko betarik izaten. Tratamendua egin eta hurrengo egunean entrenatzen jarraitzen dute, eta lesio berarekin jarraitzen dute. Neguan gehiago lesionatzen dira udan baino. Udan gauza puntualagoak izaten dira, estropada batean zaintiraturaren bat jasatea, adibidez. Kasu horretan, bertan nagoenez, egunean bertan artatzen dut arraunlaria.

Material bereziren bat behar izaten duzu?

Normalean ez dut material askorik erabiltzen. Kontaktua duten kirolekin alderatuz, futbolarekin, errugbiarekin edota eskubaloiarekin adibidez, arrauna errepikakorra da, keinu berberak egiten dituzte behin eta berriz: artikulazio eta lotailuek gutxiago sufritzen dute. Normalean, masajerako olioia eta krema beroa erabiltzen ditut soilik. Bestetan, orratzak erabiltzen ditut ere puntu zehatzak bilatu eta zuzenean horietan eragiteko. ✕



amets sukaldeak

sukalde eta bainugela estudioa

hartu olatua!

dica. banatzailea
www.dica.es

Zubitxo 15, behea
20100 Lezo
t. 943 341678
ametsukaldeak@gmail.com
www.ametsukaldeak.com

B adatorrela gizonetzkoen Frantziako Tourra. Lehen hiru etapak EAEn eta Lapurdin barrena, eta sartu-irtentxo bat Zuberoako Basabürüan bosgarren etapan. Neroni ere txirrindularitza zale amorratua naizen aldetik, gertutik jarraituko dut Pogacar eta Vingegaarden arteko lehia. Landismo pixka batekin, nola ez.

Le Tour, c'est le Tour. Hala saltzen da Frantziako lasterketaren mistika eta tamaina erraldoia. Baina oro ez da urre Prudhomme jaunaren pastelean. Baditu orbanak, mendiko maillotak nola. Eta ustedut zalerik porrokatuenari ere badagokio, la halako festaren aurkiaz gozatzeaz gain ifrentzuari ere erreparatzea.

Eztabaidatu behar delako zenbateraino den zilegi diru publikoaren kutzako 15 milioi euro halako parafernalian gastatzea. Eta modu ez oso gardenean gastatzea ere, Ahoztar Zelaietak berriki idatzi duenez. Azaldu beharko litzateke nori ekartzen dion etekina eta nori galera. Zeren ostatu, jatatxe eta hotel asko lepo beteko diren bitartean, diot nik errepideak ordu luzez ixtea ez zaiola debalde aterako beste askori, eta batzuen Tourra besteen *turra* izan daitekeela. Tamalez, badirudi greben eta lan-gatazken inpaktu ekonomikoa hain zorrotz kalkulatzeko dituen algoritmoak ez duela funtzionatzen kasu hauetan, dena delakoagatik.

Zalantzan jar genezake ea elegantea den halako dirutzak gastatzea eliteko ziklistak ekartzen, bertako emakumeen eta gazte mailako txirrindularitzaren egoera horren erdipurdikoa den honetan. Eta debalde lan egingo duten boluntario eske harrobiko klub horiengana jotzea ez ote den euren aurpegian barre egitea. Aipatu beharko da, halaber, zeinen justifikaezina den Tourraren zirkuak hiru astez uzten duen aztarna ekologikoa. Eta zeinen inkongruentea urte luzez Espainiako Vueltarekiko mesfidati izan garen hegoaldearrok Frantziako Tourrari halako erreberentzia egitea.

Jakin nahiko nuke, baita ere, halako makrokitaldiak antolatzearen sukarrak mikro izatearen konplexurik ez ote duen ezkutatzen. Eta hainbestearainoko jendetzak

Ongi eTourri

Mikel Irastortza Olaziregi

JERUSALEMEN BIZI DEN IRUNDARRA



kasik kirol ekitaldietarako bakarrik mugitzeak zer esaten duen gutaz. Ezin ahaztu, bestalde, Basque Country hiru egunez Bike Country izan daitekeen arren, oraindik ere egunerokoan bizikletaz funtzionatzea oso nekeza dela Euskal Herrian, eta askoren begietara xelebrekeria progreratsa.

Sportwashing-aren afera ere nahiko nuke ekarri hona. Euskal errepideetan barrena pasako baitira 176 txirrindulari paparrean daramatzatenak IbeX 35eko en-

beste bandera bat, hiruki gorri baten azpian marra zuri, berde eta beltza dituen. Nago tripako minen bat edo beste eragin-go zukeela horrek Lur Sainduan.

Eta irribarreraren bat ere bai, ziurrenik. Alaa al-Dali gazatarrarena, kasu. Puntako txirrindularia, Al-Dali Palestinako txapeldun nazionala izan zen 2018an eta Asiako Jokoetarako txartela eskuratu zuen. Urte hartako martxoaren 30ean Itzulera Handiaren Martxara joan zen, beste milaka gazatarrekin batera, Israelen blokeoaren aurka protesta egitera. Gazako hesitik 300 metrora zegoen manifestari begira, bere bizikleta eta txirrindulari arropa eta guzti, frankotiratzaile israeldar batek tiroz eskuineko hanka txikitu zionean.

Belaunetik behera hanka ebaki behar izan zioten Al-Daliri, baina ez zuen hartatik bere bizikleta asmoekin etsi. Flavia Cappelliniren *Tour de Gaza* dokumental laburrak erakusten duen gisan, Gazako lehen txirrindularitza egokituko taldean korritzen du orain Al-Dalik, eta Paralinpiar Jokoetan Palestinaren izenean parte hartzea du amets.

Le Tour, c'est le Tour, eta nire apustua da Vingegaardek jantziko duela horia Parisen. Baina Al-Daliren erronkaren aldean, Tourra ez da horren Tour. ✕

Nire apustua da Vingegaardek jantziko duela horia Parisen. Baina Al-Daliren erronkaren aldean, Tourra ez da horren Tour

presen izenak, petrolio konpainienak, aseguru etxeenak, auto fabrikatzaileenak, industria farmazeutikoarenak eta kreditu konpainienak. Eta horri gehitu behar zaie Kazakhstan, Bahrein, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak eta gertuagotik tokatzen zaidan Israelen labela daramatenak.

Populismo merkea litzateke, eta ez oso koherentea nire partetik, boikotaren aldarriari helduko banio hemen. Akaso «merkatua da, lagun». Baina txirrindulariak banku baten logotipoa daraman ikurrinarekin animatzeko grina berezirik ez duen zale horri galdegingo nioke eraman dezala







BARRUKO PALADAK

Barruko paladak ebazten du norabidea.

MENDI URRUZUNO
ERRETERIA-ORERETA

Uretan sua piztera doaz Hibaikako bi ontziak

EuskoTren Ligan mantentzea dute helburu Hibaikako emakumeek. Gizonek, berriz, KAE2 Ligako goiko postuei eustea dute erronka. Egingarriak dira biak.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Helburu nagusi bakarrarekin hasiko dute Hibaikako emakumeek bihar denboraldia: EuskoTren Ligan mantentzea. Lorgarria dela uste du Iñaki Mendizabal entrenatzaileak: «Urtetan zehar egindako lana islatzen bada udaran zehar, hurrengo urtean Eusko-



Haur bat Hibaikaren kamiseta soinean, denboraldiaren aurkezpenean. **Dani Novas**

Tren Ligari eusteko aukerak ditugu». Ligan ari diren ontziek urte batzuk darमतela nabarmen jarri du Mendizabalek, «gu, traineru berri bezala, hor mantentzen saiatuko gara». Beste ontzien eskarmentua ez, baina gogor ari dira lanean, eta ilusioa ere ez dute falta goreneari

mantentzeko, «erronka bete ezean, play offa ere hor dago». Biharkoari begira ere jarri da: «Galiziako eremua askotan oso konplikatuak jartzen da; ez da erraza izaten han arrauna egitea. Ea lanak ondo eginda itzultzen garen».

KAE2 Ligako goiko postuetan aritzea du helburu, berriz, Josetxo Arrizabalaga Hibaikako gizonen entrenatzaileak, «bigarren-hirugarren postuan ibiltzea» alegia. Eskarmentua eta gaztetasuna uzartzen ditu taldeak, eta helburuari fin erantzun diote arraunlariek denboraldiko lehen hitzorduan hirugarren sailkatuta. Beste helburu bat ere aipatu du: «Harrobiko arraunlari nahiko izatea urte osoan entrenatu ahal izateko. Etorkizuneko traineru bat osatzen ari gara. Jendek nahiko juxtu ibili gara neguan eta udaberrian, eta behar moduan entrenatzeko aukerarik ez du ematen horrek». Daukatenarekin «moldatzen» ari direla dio Arrizabalagak. Haizea poparean hasi dute denboraldia; hala mantentzea dago gokie orain. ✕



Hibaikako zaleen denda ofiziala

- Kamixeta, zapi eta bestelakoak gurean ●




Foru plaza, 21 - 943 511 887 - 20100 Errenteria

AUPA HIBAIIKA!



samar
ADMINISTRAZIOAK

Biteri 43, behea. Errenteria-Oreeta
943 503 224 - 688714 314
samar.admon@gmail.com



**Esther Sagasti Orodea
Ana Elizondo Iriarte**

Barne Diseinua

ETXEBITZA NAHIZ LOKALEN PROIEKTU ETA LANAK

Santxoenea 31 . Errenteria . 679703944 . 605765316
www.sagastielizondodecoracion.com

Fauna y Flora

HOFF



carhartt



NÜMPH

KALIMA

emakume eta gizonentzako arropa eta osagarriak



Biteri 25. Errenteria-Oreeta. Tel.: 943510372

EUSKOTREN LIGA



Ane Aiestaran
19 urte. Errenteria-Orereta



Zuriñe Alberdi
29 urte. San Pedro



Paula Amutxastegi
32 urte. Zarautz



Claudia Armora
21 urte. Flix, Katalunia.



Garazi Arabiotorre
19 urte. Hernani



Leire Arrojeria
31 urte. Zarautz



Nerea Deobarro
19 urte. Errenteria-Orereta



June Galardi
22 urte. Oiartzun



Miren Amaiur Garcia
17 urte. Errenteria-Orereta



Maddi Insausti
21 urte. Errenteria-Orereta



Goiatz Iza
18 urte. Errenteria-Orereta



Ihintz Larrañaga
18 urte. Hernani



Judith Llanes
23 urte. Portugaleta



Lisa Mancebo
21 urte. Dominikar Errepublika



June Mikeo
22 urte. Errenteria-Orereta



Itxaso Murcia
21 urte. Errenteria-Orereta



Nerea Orena
42 urte. Donostia



Jone Pastor
20 urte. Hernani



Uxue Rodriguez
22 urte. Errenteria-Orereta



Natalia Tubio
23 urte. Boiro, Galizia



Nora Urbe
17 urte. Hernani



Laia Urretabizkaia
19 urte. Errenteria-Orereta

Entrenatzailea: **Iñaki Mendizabal**

KAE 2



Jon Morillo
24 urte. Errenteria-Orereta



Alex Badiola
29 urte. Errenteria-Orereta



Adur Ferradas
20 urte. Errenteria-Orereta



Ander Andonaegi
20 urte. Donostia



Aratz Bergara
31 urte. Pasai Antxo



Jon Torres
34 urte. Oiartzun



Raul Brion
35 urte. Errenteria-Orereta



Alejandro Fariña
35 urte. Meis, Galizia



Ander Urtasun
37 urte. Donostia



Javier Erro
28 urte. Iruñea



Gaizka Ormazabal
40 urte. Lasarte



Oier Gallastegi
17 urte. Pasaia



Iker Rodriguez
26 urte. Donostia



Eric Puy
32 urte. Donostia



Xabier Agirre
51 urte. Donostia



Jose Antonio Pereira
49 urte. Pasaia



Ander Plata
16 urte. Errenteria-Orereta



David Correa
29 urte. Mos, Galizia



Iraitz Lamana
19 urte. Donostia



Javier Almiron
30 urte. Donostia



Zuriñe alberdi
29 urte. San Pedro

Entrenatzailea: **Jose txo Arrizabalaga**

Valentín
FOTO/BIDEOA

Gora Oarsoaldeko ARRAUNLARIAK!

Tel.: 943 528 176
Bizente Elizegi, 3. Orereta-Errenteria

ARKAITZA

taberna

Aupa Orio eta Hibaika!

Gamon Zumardia • 943 522 862 • Orereta

HONDARRIBIA



Hondarribia Arraun Elkarteko gizonen lehen taldea lehian. **Josu Z.**

Kolore berdea nagusi izan dadin borrokatuko du Hondarribiak

Hondarribia Arraun Elkartek hiru ontzi itsasoratuko ditu aurten. Gizonen lehen taldeak onenen pare egoten jarraitu nahi du, eta emakumeak, iguera lortu ondoren, gora begira jarri nahi dute.

MIKEL DEL VAL

Erreferentziatzko trainerua izan da Hondarribiko gizonena azken urteetan, eta bide horretan jarraitu nahi dute aurtengo denboraldian. Iaz saioi «oso konpletoa» egin zutela adierazi du Mikel Orbañanos Eusko Label Ligako *Ama Guadalupekoa*-ren entrenatzaileak, baina sari potolorik gabe geratu ziren: ligaren bigarren sailkatu ziren, Urdaibaitik

hiru puntura, eta Kontxako Banderan hirugarren izan ziren bermeotarren eta Donostiarraren atzetik. Aurten arantza hori kendu nahi dute.

Eusko Label Liga bihar (larunbata) hasiko da Coruñaiko uretan, eta taldea «ondo» dagoela aurreratu du Orbañanosek. Hondarribiarrek Gipuzkoako Txapelketa bereganatuta eta Euskadikoan bigarren izanik ekingo diote ligari. Entrenatzaileak iazko antzeko taldea izan-

EUSKOTREN LIGA

-  **Jule Arkotxa**
19 urte. Lekeitio
-  **Ane Azpiroz**
19 urte. Hondarribia
-  **Irati Camarero**
21 urte. Hondarribia
-  **Intza Fernandez**
26 urte. Lasarte-Oria
-  **Miren Garmendia**
24 urte. Hernani
-  **Irati Gaztelumendi**
21 urte. Lezo
-  **Nerea Itxaso**
22 urte. Donostia
-  **Eneritz Martiarena**
21 urte. Irun
-  **Ane Mendizabal**
25 urte. Hondarribia
-  **Marta Ruiz**
17 urte. Badalona, Katalunia
-  **Iraia Mendizabal**
22 urte. Hondarribia
-  **Jasone Mitxelena**
28 urte. Oiartzun
-  **Katalin Negrete**
18 urte. Lekeitio
-  **Maddi Olaskoaga**
23 urte. Hondarribia
-  **Amaia Olazabal**
21 urte. Irun
-  **Mainer Peñalva**
23 urte. Gasteiz
-  **Mainer Perez**
26 urte. Hernani



Hondarribian euskaraz bizi



Adriana Ramos
23 urte. Irun



Helene Sagarzazu
20 urte. Irun

Entrenatzailea: **Iker Cortes**

EUSKO LABEL LIGA



Manex Aldai
33 urte. Hondarribia



Beñat Alkain
22 urte. Hondarribia



Bikendi Alza
30 urte. Hondarribia



Ioseba Amunarriz
44 urte. Hondarribia



Ibai Camarero
22 urte. Hondarribia



Julen Castrillon
33 urte. Hondarribia



Mattin Colas
20 urte. Hondarribia



Iker De La Linde
25 urte. Hondarribia



Beñat Egiazu
29 urte. Hondarribia



Xabier Etxebeste
43 urte. Zarautz



Galder Ezponda
31 urte. Hondarribia



Adrian Gonzalez
33 urte. Castro Urdiales



Gaizka Gorostiaga
29 urte. Getaria



Eneko Iridoi
22 urte. Hondarribia



Xabier Irigarai
22 urte. Hondarribia



Aimar Kanpandegi
20 urte. Hondarribia



Ander Legazkue
25 urte. Hondarribia



Xabier Olaskoaga
20 urte. Hondarribia



Battit Ondikola
28 urte. Donibane Lohizune



Xabier Ormazabal
27 urte. Tolosa



Iñigo Jokin Sagarzazu
31 urte. Hondarribia

Entrenatzailea: **Mikel Orbañanos**

KAE1 LIGA



Beñat Alkain
22 urte. Hondarribia



Kepa Altuna
22 urte. Hondarribia



Oinatz Amado
21 urte. Donostia



Telmo Baid
22 urte. Irun



Gonzalo Carrion
45 urte. Hondarribia



Mattin Colas
20 urte. Hondarribia



Iker De La Linde
25 urte. Hondarribia



Mikel Dean
25 urte. Hondarribia



Ioritz Errezola
24 urte. Hondarribia



Oier Garaiar
19 urte. Hernani



Xabier Herrador
20 urte. Irun



Iker Huarte
20 urte. Hondarribia



Xabier Ibarretxe
17 urte. Zierbena



Aimar Kanpandegi
20 urte. Hondarribia



Eneko Larruskain
20 urte. Hondarribia



Unai Lekuona
22 urte. Hondarribia



Martin Muñoz
20 urte. Hondarribia



Xabier Olaskoaga
20 urte. Hondarribia



Jon Pascual
21 urte. Hondarribia



Xabier Salaberria
20 urte. Hondarribia



Gorka Sanchez
24 urte. Irun

Entrenatzailea: **Gonzalo Carrion**



**IRUBI
TAILERRAK**

Multimarka tailerrak
VW, SEAT, AUDI, SKODA
eta pneumatikoetan
espezialistak

Talaia poligonoa E 12. - Oiartzun
Tel.: 943 26 13 25 . Faxa: 943 26 13 26
mecanicairubi@gmail.com
www.mecanicairubi.com



BOGA!!

**LARRAÑAGA
PROIEKTUAK**

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUAK ETA ABAR...
INMOBILIARIA ZERBITZUAK



www.larranaga-proiektuak.com

Talaia industriagunea P-1, 8. lokala. OIARTZUN - Tel.: 943 558 104



HONDARRIBIA

go du bere esanetara, blokea mantendu baitute. Taldeak bost baja izan ditu, eta lau alta izan dituzte eskifaia osatzeko.

Ama Guadalupekoa-ren prestatzaileak ez du ezkutatu «aurrean ibiliko diren traineruekin lehiatzeko moduan» izango direla. Iaz «irabazlea adina» ibili zirela aitortu du Orbañanosek, eta aurtengo helburua «lehengo urteko maila ematea» dela nabarmendu du: «Iazko maila lortzen badugu, handia izango da. Lehen postuetan ibiliko diren traineruekin lehian egon nahi dugu. Maila hori lortzen badugu, bizirik egongo gara, eta uda polita egiteko aukera izango dugula iruditzen zait». Neguko estropadak eta taldeen osiera ikusita, Bizkaiko eta Euskadiko txapelkun izan den Urdaibai jarri du faboritotzat.



Hondarribia Arraun Elkarteko emakumeen eskifaia iren irudi bat. **Josu Z.**

EMAKUMEAK

Iker Cortesek gidatutako taldeak denboraldi aparta osatu zuen iaz, eta Eusko Tren Ligarako igoera lortu zuten ETE Ligan txapelkun izan eta hamabost estropadetan hamar garaipen lortu ondoren. Sasoa biribila izan zen, eta bide horretatik hasi nahi dute aurtengoa. Cortesek aitortu du «gogotsu» daudela denboraldiari ekiteko, «eta liga berezi eta berri hau hasteko eta probatzeko».

Aurtengoa aldaketen urtea da emakumeen arraunean, Eusko Tren Liga lau taldetik zortzira handitu baita. Ama Guadalupekoa-ren prestatzaileak esan du emakumeak aspalditik zetozela «maila polita» ematen, eta «behingoz» gauzatu dela aspalditik zetorren eskakizuna. Ligaren handitze horrek emaku-

meen arraunari eta Eusko Tren Ligari «ikusgarritasun handiagoa» emango diola ziur da.

Gizonen antzera, emakumeek ere bihar hasiko dute liga Coruñan, eta Cortesek onartu du taldea «ondo eta gogotsu» dagoela. «Asko eta ondo entrenatu dugu negu guztian, eta neskak ondo iritsi dira hasierara», esan du. Gipuzkoako Txapelketan laugarren izanik, eta Euskadikoan bosgarren sailkaturik ekingo diote hondarribiarrek ligari.

Cortesek baietsi du iazko antzeko taldea izango dutela, igoerako blokea mantendu baitute. Bi baja eta alta bat izan dituzte, baina ia talde berbera izango dute, oso gaztea: «Blokea mantendu dugu eta hori oso garrantzitsua da».

Ama Guadalupekoa-ren prestatzaileak aitortu du helburu nagusia maila mantentzea dela. Hala ere, Cortesek argi du play offa ekidin eta lehen txandara begira egon nahi dutela.

GIZONEN B TRAINERUA

Hondarribia Arraun Elkartek lehian duen hirugarren eskifaia da gizonen bigarren taldea. Eurek, dagoeneko, ekin diote denboraldiari, KAE1 Ligako lau estropada lehiatu baitira. Momentu honetan sailkapenaren bederatzigarren postuan dira 17 punturekin. Talde gaztea dute, eta maila mantentzen ahaleginduko dira. Bihar itsasoratuko dira berriz ere Pasaiaiko uretan, sasoko bosgarren estropadan. ✕

Abante
boga!

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Irunen eta Beran

943 63 45 36

aurkituko gaituzu

www.goieko.com

TRAINERUAK

8

Oarso Bidasoko traineruak. Aurtengo ligetan Pasaiaiko, Errenteria-Oreretako eta Hondarribiko zortzi traineru izango dira lehian. Hondarribia izango da ontzi gehien osatzeko ahalmena izan duen arraun elkarte, hiturekin: EuskoTren Ligakoa, Eusko Labelekoa, eta KAE1ekoa. Hibaikak bi traineru izango ditu Kantaurian, EuskoTren Ligakoa eta KAEkoa. San Juan ere bi hamalaukorekin hasi da lehian, KAE1 eta KAE2 ligetan daudenak. San Pedrok, berriz, KAE1en du bere ontzi bakarra.

Bihar, arraun festa Pasaiaiko badian

Pasaiaiko badia, beste behin, arraunaren erdigune izango da bihar. KAE1, KAE2 eta ETE ligetako estropadak jasoko ditu, oraingoan San Juan-Koxtapek antolatuta. 17:00etan hasiko da ETE Ligako estropada; Oarso Bidasoko ordezkariak ez da hor. Ordu erdi geroago hasiko da KAE2ko bigarren estropada, Fegemu bandera, Hibaikaren eta San Juan Bren partaidetzarekin. 18:00etarako eguneko plater nagusia: KAE1eko bosgarrenean, San Pedro, San Juan eta Hondarribia B ariko dira liga horretako beste bederatzitri traineruekin batera. Aldi berean, bihar arratsaldean hasiko dira EuskoTren eta Eusko Label ligak Galizian.

HONDARRIBIA ARRAUN ELKARTEA



GARAIPENEKIN HASI DA SASOIA

U. ETXEBESTE

Bihar hasiko dira, Galizian, oraindik martxan ez diren bi ligak: EuskoTren eta Eusko Label. Coruñaiko bandera izango dute jokoan bihar eta etzi: larunbatean 17:30ean hasita, eta igandean 11:30etik. Aurretik, baina, irabaziak dituzte *trapuak* bertako traineruek: Hondarribia Gipuzkoako txapelkun izan zen, gizonen kategorian, ekainaren 4an. KAE1an, ostera, orain arte jokoan izan diren lau estropadetatik bi irabazi ditu San Pedrok, eta beste bat San Juanek.

ATAL BEREZIAK

HITZAN, INFORMAZIO OSOA

Webguneetan. OARSO BIDASOKO HITZAK, arraunarekin lotutako astekariko orrialde berezi hauetaz gain, arraun saioaren jarraipen berezia egingo du *oarso-aldea.hitza-eus* eta *bidasoa.hitza.eus* webguneen bitartez. Horretarako itsasoko kirol historiko horri lotutako atal bereziak sortu ditu bi webguneetan, hainbat osagairekin

Emakumeak, EuskoTren Ligan

EuskoTren Ligan lau traineru izatetik, zortzira pasa da aurtengoa. Hibaika eta Hondarribia izango dira bertakoen ordezkari emakumeen ligarik nagusienean. Horrek esan nahi du ETE Ligan ez dela Oarso Bidasoko ontzirik ariko lehian, oraindik orain San Juanek ez duelako lortu itsasoratzeko garantiazko kuadrillarik.



Lezoko Unibertsitateko Udala



Euskara ikasten aritu zara?

Eskatu zure beka uztailaren 3a (barne) baino lehen (Matrikularen %100)

ERIK GARTZIA EGAÑA

Gora begira hasi da Sanpedrotarra Arraun Elkarteko trainerua, iaz bezala. KAE1 ligako denboraldia ederki hasi du Pasaiaiko bokaleko men-debaldeko eskifaiak, lau estropadetatik bi irabazi baititu: Mundakakoa pasa den igandean eta etxekoa, eurek antolatzen dutena hilaren 18an.

Denboraldi berriarekin itxaropentsu dago Xabier Isasa klub moreko presidentea. Alta eta bajen atalean ez da dantz handirik egon. «Sei edo zazpi arraunlari berri ditugu, eta beste hainbeste ekarri ditugu. Baja kopuru hori da normalena, ikasketengatik, edo atsedeen hartzeko urtea nahi dutenak beti izaten direlako», esan du Isasak. Helburua aurreko urteetako «blokea» mantentzea zen, eta horrekin batera, goiko postuetako borrokan aritzea. Onartu du «zaila» izango dela, iaz bezala, play offetara sailkatzea. Hala ere, adierazi du sailkapenaren lehenengo postuetan bukatzeko maila badaukala San Pedroko eskifaiak, denboraldiko lehenengo proba puntugarrietan ikusi den bezala. Izan ere, lau estropada jokatu ondoren, lehenengo postuan daude.

Bolada horri eutsi nahi diote, baina banderekin itsutu gabe, Isasak esan duenez. «Banderak irabazten baditugu, ongietorriak izango dira, baina garrantzitsuena erregulartasuna mantentzea da, eta puntuak pilotzea». Modu horretan, estropadaren batean egindako akatsak ez lukete sailkapen nagusian hainbesteko eraginik izango.

Denboraldi hasieraren txanpa onari eutsi nahi diote

Sanpedrotarrek bikain hasi dute denboraldia, jokatutako lau estropadetatik bi irabaziz. Beraien helburua play offetara sailkatzea izango da, beste behin.

KAE1



Peru Alkorta
26 urte. Pasaia



Iñigo Arraras
40 urte. Pasaia



Joseba Azurmendi
33 urte. Donostia



Gabriel Bedia
43 urte. Pedreña, Kantabria



Asier Carballeda
43 urte. Pasaia



Oier Elustondo
22 urte. Pasaia



Ion Fidalgo
42 urte. Errenteria-Orereta



Mikel Imaz
30 urte. Donostia



Aitor Iruñ
18 urte. Tolosa



Gabriel Izagirre
21 urte. Oiartzun



Jon Jauregi
23 urte. Andoain



Imanol Olasagasti
22 urte. Aduna



Gorka Olasagasti
29 urte. Aia



Haritz Olasagasti
35 urte. Aia



Jon Olasagasti
40 urte. Aia



Beñat Ouviaña
21 urte. Pasaia



Aitor Portela
25 urte. Errenteria-Orereta



Ander Rekondo
21 urte. Larraul



Martin Rekondo
26 urte. Larraul



Aimar Santiago
19 urte. Pasaia



Mamadou Sarr
31 urte. Ondarroa



Iñigo Tamariz
24 urte. Pasaia



Mikel Txintxurreta
25 urte. Pasaia

Entrenatzailea: **Asier Carballeda**



**KEPA DEUN
ARRANTZALEEN KOFRADIA**

San Pedro tra ka tra!!!

San Pedro, 14 / 943 39 63 40

Faxa: 943 39 63 43 / admin@kofradiapasajes.com



Hala ere, Isasa tentuz dabil. «Udara luzea izango da, eta oraindik ikusi behar da nola joango den; serio jarraitu behar dugu». Beraien lana txukun egiteaz arduratzeaz gain, kanpoko faktoreek ere pisua izango dute denboraldi bukaeran. «Ikusi beharko da Eusko Label Ligako en maila, baita galiziarrena ere. Abuztuan finkatzen da dena; orduan aldera deza-kezu, baina orain ez dugu arrastorik ere. Orduan egingo dugu azterketa».

AUZOKOAK, ARERIO

KAEreko goiko postuetan hainbat arerio izango dituztela aurreikusitako du Isasak: Lapurdi, San Juan, eta, koska bat beherago, Arkote zein Zumaia. Hori bai, estropada eremuek eta barruko kaleek probak erabat baldintza ditzaketela nabarmendu du Sanpedrotarraren presidentek. Badiaren bestaldeko traineruarekin lehiatzea «pozgarria» dela aitortu du Isasak, baita arraunarentzat berarentzat ere, «kirol lehia» hori dagoelako. «Maila ona daukate, eta uste dut hor goian



'Libia' ontziko eskifaiak bikain hasi du denboraldia. **Josu Z.**

egongo direla gurekin». Gainera, harrobiko arraunlari asko izatea ere arraunarentzako ona dela uste du.

Isasari gustatuko litzaioke harrobiko arraunlari propio gehiago edukitzea, «epe ertainera». Kanpotik arraunlariak etorri arren, «etxekotzat» ditu sanpedrotarren ordezkariak. «Kanpotik etorri diren horiei eskerrak eman behar zaizkie, oso ongi moldatu direlako. Guretz-

ko etxeokoa dira guzti-guztiak. Giro oso polita daukagu taldean».

Kirol arloa alde batera utzita, komunitatea indartzen duen keinu horietako bat egin zuten hilaren 18an: Tirri Tarra fanfarrearen izena eraman zuten *Libia*-ren brankan, beraien mende erdiaren ospakizunarekin bat eginez. Ea hasi berri den denboraldiaren doinuak harmoniatua izaten jarraitzen duen. ✕

WALDAKETA
Psikogunea

PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZA

HAURRAK-NERABEAK
HELDUAK-BIKOTEAK

- Olatz Elizondo Cuñado - Psikopedagogo
- Maite Elizondo Cuñado - Psikologoa

Luis Mariano 4- 1.B - 20302 IRUN
943 631 572 - 664 422 440

COEXPE
COOPERATIVA DE EXPORTADORES
DE PESCADO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO ARRAIN
ESPORTATZAILEEN KOOPERATIBA

Portu aldea, 1. lonja. administracion@coexpe.es
Tel.: 943 39 91 60. Faxa: 943 39 68 17

Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo. San Pedro.
Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14

Sanpedrotarra
ARRAUN ELKARTEA

Instagram, Twitter, www, Facebook

ARRAUN ELKARTEA

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Bi traineru, eta bi helburu oso ezberdin. KAE1 eta KAE2 ligetan traineruak izango ditu aurten San Juan-Koxtape Arraun Elkarteak, biak gizonenak beraz. *Erreka* nagusiaren helburua, tapakirik gabe, Eusko Labelera iristeko baliagarri izan daitezkeen lehen bi plazetan izatea da. Bigarren *Erreka*-ko arraunlariena, berriz, ikastea eta formaztea.

KAE1en lau estropada eginak ditu jada San Juanek. Lehena irabazi zuten, Donibane Lohizunen. Handik aurrera behar bada banderaren aldeko borrokan ez, baina aurrean erregular izan dira. Play offetarako bi postu horien borrokan San Pedro, Lapurdi, Arkote eta Zumaia dituzte bidaide. «Bagaude bost talde bi plaza horien bila. Lehia polita izango da», nabarmendu du Endika Zaldua entrenatzaileak.

A taldeak iazko bizkarrezurra mantendu du. Inportantea da hori traineru baten garapenerako. Iaz hasitako ibilbidea, beraz, aurten indartzea dute helburu arrosek. Gainera, lehia historikoarekin: «Neguan ikusten genuen udara eder joango zela. Hau da, San Pedroekin lehia historiko hori berraktibatzea polita izango da». KAE1eko azken estropada, hamabosgarrena, abuztuaren 20an izango dute Bilbon. «Gure asmoa denboraldia ahalik eta gehien luzatzea da», azaldu du Zalduak, umorez.

Urko Kortajarena da B ontziaren entrenatzailea. Haren esperientzia arraunlarien artean zabaltzeko lanean ari da.



KAE1eko 'Erreka' ontzia, ekainaren 18an badian egin zen estropadan. **Josu Z.**

Konpetizioa eta formazioa, arrosen erronkak aurten

KAE1 eta KAE2 ligetan 'Erreka' bana izango ditu San Juanek aurten. Traineru nagusiaren helburua, zalantzarik gabe, play offetarako sailkatzea da. Bigarreneko kirolariena, ikastea.

KAE2ko lehen estropada joan den asteburuan izan zuten Mutrikun, eta azkena izan zen *Erreka*. «Ontziko hamalau arraunlarietatik 11k 20 urtetik behera zituzten. Inork ez ditu hainbeste gazte traineruan. Hori oso kontuan hartu behar da. Gure helburua arraunlariak formatzea da, baina behin uretan izanda, lana ahalik eta txukunen egiten saiatuko gara».

Arraunkera eta bestelako alor tekni-

koak lantzen ari da Kortajarena gazteenekin. Baina arlo emozionala ere kontuan hartu behar dela dio: «Iaz Gazte Mailan estropada asko irabazitakoak daude traineruan. Ez dute atzean izateko ohiturarik. Arlo emozional hori ere landu behar da». Potentzial handiko kirolariekin ari dela uste du Kortajarenak. «Baina gazteak izanik, ikastea dagokie. Estropada guztietan ikasi behar dute, eta ahal bada, emaitzak hobetzen joan». ✕

PORTUKO PILOTUAK

PORTUKO PILOTUAK - CORPORACION PASAJES PILOTUAK
PASAJES PILOTUAK

San Pedro kalea, 32
Pasai San Pedro
943 35 15 34
www.pasajespilot.com

rka
holkularitza asesor

rkasesoria@gmail.com
943114148 · 663443337
Donibane kalea, 2 behea
PASAI DONIBANE

| Fiskala | Kontabilitatea | Lana
| Aseguroak | Finken Administrazioa

KAE1

-  **Ion Arbona**
24 urte. Pasaia
-  **Imanol Arregi**
34 urte. Oiartzun
-  **Anartz Beraza**
20 urte. Pasaia
-  **Mikel Etxabe**
21 urte. Pasaia
-  **Aritz Etxezarreta**
18 urte. Pasaia
-  **Ander Egaña**
26 urte. Errenteria-Orereta
-  **Unax Errondosoro**
19 urte. Lezo
-  **Igor Gomez**
41 urte. Errenteria-Orereta
-  **Egoitz Iparragirre**
20 urte. Lezo
-  **Aritz Irigoien**
22 urte. Oiartzun
-  **Urko Kortajarena**
47 urte. Pasaia
-  **Julen Larre**
21 urte. Errenteria-Orereta
-  **Andoni Magan**
29 urte. Donostia
-  **Ander Makazaga**
25 urte. Pasaia
-  **Unai Mitxelena**
25 urte. Oiartzun
-  **Oier Mugarza**
24 urte. Oiartzun
-  **Imanol Muñoz**
27 urte. Hernani
-  **Endika Perez**
36 urte. Pasaia
-  **Markel Perez**
20 urte. Pasaia
-  **Maikel Rañales**
30 urte. Pasaia
-  **Ibai Sistiaga**
34 urte. Pasaia
-  **Beñat Urbizu**
26 urte. Lezo

Entrenatzailea: **Endika Zaldúa**

KAE2

-  **Kimetz Arbona**
20 urte. Pasaia
-  **Oier Anartz Arias**
19 urte. Pasaia
-  **Xabi Arruabarrena**
16 urte. Pasaia
-  **Mikel Artola**
17 urte. Donostia
-  **Aritz Etxezarreta**
18 urte. Pasaia
-  **Orkatz Erkizia**
19 urte. Oiartzun
-  **Unax Errondosoro**
19 urte. Lezo
-  **Jon Escribano**
18 urte. Pasaia
-  **Hegoi Etxeberria**
19 urte. Donostia
-  **Naim Ezzoubair**
19 urte. Donostia
-  **Urko Garagarza**
24 urte. Donostia
-  **David Garcia**
17 urte. Errenteria-Orereta

-  **Igor Gomez**
41 urte. Errenteria-Orereta
-  **Erik Gonzalez**
20 urte. Hernani
-  **Aitor Iparragirre**
20 urte. Pasaia
-  **Asier Iparragirre**
14 urte. Pasaia
-  **Urko Kortajarena**
47 urte. Pasaia
-  **Iker Larre**
18 urte. Errenteria-Orereta
-  **Xabier Medina**
19 urte. Hernani
-  **Markel Perez**
20 urte. Pasaia
-  **Asier Sanchez**
19 urte. Donostia
-  **Asier Sarasua**
27 urte. Lezo
-  **Aitor Sistiaga**
29 urte. Pasaia

Entrenatzailea: **Urko Kortajarena**

- Haur eta helduentzat
Terapia Estrategiko Laburra
- Banakako, bikote eta
familia terapia



**JAKOBE
PSIKOTERAPIA**
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartea,
5. bulegoa. Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com

Lete

itzulpenak

www.lete.net

administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net
www.lete.net



la coquine

La coquine deco *Dekorazioa
eta opari bereziak*

Foruen plaza 20, Errenteria • 943 905 774 • 610325416



*zatoz gure
denda ezagutzera!*

ESTROPADEN EGUTEGIA 2023

EKAINA

11	Euskadiko Traineru Txapelketa	Ondarroa	
17	Donibane Ziburuko estropada	Donibane Lohizune	ETE
17	Donibane Ziburuko estropada	Donibane Lohizune	KAE1
18	Hernaniko bandera	Pasaia	ETE
18	Kepa Deun Ikurrina	Pasaia	KAE1
24	Mutrikuko bandera	Mutriku	KAE2
24	Elantxobeko bandera	Elantxobe	KAE1
25	Mundakako Ikurrina	Mundaka	ETE
25	Onura Homes Ikurrina	Mundaka	KAE1

UZTAILA

1	San Juan bandera	Pasaia	ETE
1	Fegemu bandera	Pasaia	KAE2
1	CMO Valbes Bandera	Pasaia	KAE1
1	Coruñaiko bandera (1. jard.)	Coruña	Euskotren
1	Coruñaiko bandera (1. jard.)	Coruña	Eusko Label
2	Coruñaiko bandera (2. jard.)	Coruña	Euskotren
2	Coruñaiko bandera (2. jard.)	Coruña	Eusko Label
8	Donostiarra bandera	Donostia	KAE2
8	Fabrika bandera	Donostia	Euskotren
8	Fabrika bandera	Donostia	Eusko Label
9	Zumaiaiko bandera	Zumaia	ETE
9	Zumaiaiko bandera	Zumaia	KAE1
9	Edinor bandera	Zierbena	Euskotren
9	Petronor bandera	Zierbena	Eusko Label
15	Orio Kanpina bandera	Orio	KAE2
15	Pedreñako bandera	Pedreña	KAE1
15	Bilboko bandera	Bilbo	Euskotren
15	Bilboko bandera	Bilbo	Eusko Label
16	Portugaleteko bandera	Portugalete	ETE
16	Portugaleteko bandera	Portugalete	KAE2
16	Orioko bandera	Orio	Euskotren
16	Orioko Kanpina bandera	Orio	Eusko Label
22	Sestaoko bandera	Sestao	ETE
22	Plentziako bandera	Plentzia	KAE1
22	Sestaoko bandera	Sestao	Eusko Label
23	Astilleroko bandera	Astillero	ETE
23	Astilleroko bandera	Astillero	KAE2
23	Caixabank bandera	Castro Urdiales	Eusko Label
29	Camargoko bandera	Camargo	KAE1
29	Getxoko Ikurrina	Getxo	Euskotren
29	Getxoko Ikurrina	Getxo	Eusko Label

30	San Juan de Dios bandera	Santurtzi	Euskotren
30	Santurtziko Ikurrina	Santurtzi	Eusko Label

ABUZTUA

5	Ondarroako bandera	Ondarroa	ETE
5	Goimek Sari Nagusia	Ondarroa	KAE2
5	Txingudiko bandera	Hondarribia	Euskotren
5	Mapfre Sari Nagusia	Hondarribia	Eusko Label
6	Hondarribiko bandera	Hondarribia	KAE2
6	Hondarribiko bandera	Hondarribia	KAE1
6	Euskotren bandera	Lekeitio	Euskotren
6	El Correo Ikurrina	Lekeitio	Eusko Label
12	Pasaiaiko Ikurrina	Pasaia	ETE
12	Hibaikaren bandera	Pasaia	KAE2
12	Pasaiaiko Ikurrina	Pasaia	KAE1
12	Moañaiko bandera	Moaña	Euskotren
12	Moañaiko bandera	Moaña	Eusko Label
13	Boiroko bandera	Boiro	Euskotren
13	Boiroko bandera	Boiro	Eusko Label
15	Castroko bandera	Castro Urdiales	KAE1
19	Zarauzko bandera	Zarautz	ETE
19	Zarauzko bandera	Zarautz	KAE1
19	Zarauzko Ikurrina (1. jard.)	Zarautz	Euskotren
19	Zarauzko Ikurrina (1. jard.)	Zarautz	Eusko Label
20	Bilboko bandera	Bilbo	ETE
20	Bilboko bandera	Bilbo	KAE2
20	Bilboko bandera	Bilbo	KAE1
20	Zarauzko Ikurrina (2. jard.)	Zarautz	Euskotren
20	Zarauzko Ikurrina (2. jard.)	Zarautz	Eusko Label
26	Ondarroako bandera	Ondarroa	Eusko Label
27	Lutxanako bandera	Erandio	ETE
27	Getariako Ikurrina	Getaria	Eusko Label
30	Kontxa. Emakumeen sailkapena	Donostia	
31	Kontxa. Gizonen sailkapena	Donostia	

IRAILA

3	Kontxa. Lehen jardunaldia	Donostia	
10	Kontxa. Bigarren jardunaldia	Donostia	
16	Igoera-jaitsiera play offa (1. jard.)	Bermeo	Euskotren
16	Igoera-jaitsiera play offa (1. jard.)	Bermeo	Eusko Label
16	Bermeoko Ikurrina	Bermeo	Eusko Label
17	Igoera-jaitsiera play offa (2. jard.)	Portugalete	Euskotren
17	Igoera-jaitsiera play offa (2. jard.)	Portugalete	Eusko Label
17	El Corte Ingles bandera	Portugalete	Eusko Label

ZURE SEAT ETA VOLSKWAGEN
TALDEKO ZERBITZU OFIZIALA
ERRENTERRIAN

Ayerdi Motor

Gure bezeroei zerbitzua ematen
esperientzia handia dugu, eta Ayerdi
Motor erreferentzia da autoen salmentan,
banaketan, eta autoen konponketa
zerbitzu ofizial bezala Lezon.



ESPEZIALISTAK



ESPEZIALISTAK



ESPEZIALISTAK

- AUTO BERRI ETA AUKERAKOEN SALMENTA.
- MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA.
- TXAPA ETA MARGOKETA TAILERRA.
- ORDEZKATZE AUTOA.

INSTALAKUNTZAK: Jaizkibel hiribidea, 1 - LEZO. Tel. : 943344525
ayerdimotor@ayerdimotor.com - www.ayerdimotor.com

SAN FERMINAK

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS

PASAI ANTZO 2023

Argazkia: Olaia Gerendiain Ruiz de Gauna

Antxoko San Fermin Jaien egitarau ofizialean aurki daitezkeen ekitaldiak 6otik gora dira. Jai Bartzordeak aurtren ere ekinaren ekinez egitarau oparoa antolatzea erabaki, eta lortu du. Izan ere, topoko geltoki berria egiteko lanek barrutia erabat zartatua dute, eta zaila izan da nahi bezalako espazioak bilatzea antolatu direnentzako. Baina era batera edo bestera, eragileak ados jarri, eta denentzako duina izan daitezkeen eremuak izango dituzte Antxoko festek.

Asteazkenean, uztailaren 5arekin hasiko dira antxotarrek antolatutako ekitaldiak. 9ra arte iraungo dute. Aurtren, iaz bezala, bi gune handi izango dira herrian, Topagunea Biteri plazan eta Papineko Gazteriaren eremua Ibai Ondo pilotalekuaren aldamenean. Baina horiez gain obretatik salbu dauden karrika eta plaza gehienetan gartuko dira jarduerak. Izan ere, Iruñean zein Lesakan sanfermin ezagunak egiteagatik ere, antxotarrenak ez direlako gutxiago. Egitarau oso-oso *oarsoaldea.hitza.eus* webgunean ikus daiteke. ✕



ERASO SEXISTA,
HOMOFOBO,
XENOFOBO
ETA TRANSFORIK
GABEKO JAIK
NAHI DITUGU!

ESKAINTZA OPAROA

Asteazkenean hasi, eta hilaren 9an bukatuko dira Antxoko San Fermin Festak. Topoko geltoki berriaren lanek asko baldintzatu dute eragileen egitekoa, baina hala ere, lortu dute egitaraua osatzea.

URKO ETXEBESTE PETIRENA ANT XO

Asteazkenean hasiko dira Pasai Antxoko 2023ko San Fermin Festak. Hilaren 9ra arteko egitaraua prestatu du barrutiko Jai Batzordeak, ilusioz, gogoz, baina zailtasunekin. Izan ere, eragin oso nabarmena izaten ari dira topoaren lurpeko geltoki berria egiteko lanak: erdialde oso-osoan egiten ari dira obrak. Beraz, herritarren erabilerarako zeharo itxita dago zentroa. Horrek eragin du festetan hainbat egokitzapen egitera, espazioak eta ekitaldiak ondo-ondo koordinatze- ra. Antxo, azken hilabeteetan lanen eraginez, eta uztailearen 5etik 9ra sanferminengatik, hankaz gora izango da.

Espazioen berrantolaketa horren era-



Asteazkeneko 20:00etan izango da txupinazoa, aurtien Biteri plazan. Olaia Gerendiain

Antxo, hankaz gora sanferminetan

kuslerik nagusia izango da festen epizentroa Gure Zumardia plazatik, Biteri plazara (pilotaleku zaharra) mugiarazi dutela: han izango dira oholtza nagusia, nahiz Antxoko Topagunaren eremua. Herriko eragileen beste gune nagusia Papineko Gazteriarena izango da: haiek Ibai Ondo pilotaleku berriaren alboan jarriko dute karpa eta txosna, iazko toki berberean ez, baina antzekoan nahiz eta espazioa murriztagoa izan.

Aurrekontu oso doituak dute Pasaiako festek oro har, baita Antxoko sanferminetarako ere. Horregatik, egitarauaren barruan dauden 60tik gora ekitaldiak antolatzeke ekonomia eta matematika ariketa latza egin behar izan dute Jai Batzordeko kide diren eragileek. Martxoan hazi ziren festen prestaketarekin, eta azkenean lortu dute antxotarren gozamenerako izango den ekitaldi sorta antolatzea. Orain, herritarrei eta bisitariari dagokie horiei oniritzia ematea, nola eta ahalik eta jarduera gehienetan parte hartuz, zuzenean, edo ikusle modura. Edonola ere, jantzi zuri eta zapi gorriak jada atera dituzte armairutik he-



www.molde.eus

LANERAKO BABESA PROTECCIÓN LABORAL

Zure segurtasuna 15 urtean bermatzen

Nafarroa Etorbidea, 10 · 20110 Pasaia (GIPUZKOA) · Tel.: 943 341 035 · www.molde.eus



Ongi pasa Sanferminak!

Axular Plaza, 3. Pasai Antxo

Tel.: 943 34 05 42

PROTAGONISTAK

Zaharren Tokiko ordezkariek.

Pilar Manterola eta Enrique Martinez.

Helduen danborradako kantinera.

Eider Mohedano.

Haurren danborradako kantinerak.

Erika Botello eta Helene Millet.

Sukaldari Nagusia.

Izaskun Sagarzazu.

Basari elkartearen danborradaren ordezkariek.

Maite Etxeberria eta Xanti Esnaola.

rritarrek. Hankaz gora jarriko dute barrutia. Edonola ere, batzordekideek atak zabalik dituzte ideia eta egitasmo berriak aurkez ditzaketan antxotarrei. Aurten, adibidez, Eskubidean planaren barruan dabilzan herriko gazteek euren ekarpena egin dute lehenengoz: besteren artean goitibehera txapelketa antolatatu dute. Egitarau osoaren berri izateko, joan oarsoaldea.hitza.eus webgunera.

KARTELA ETA EGITARAUAK

Sanferminetako Kartel Lehiaketaren irabazlea Irati Prego antxotarra izan da, beraz, haren irudia izango da festen ikurra, bai kalean bai eta egitarauan ere. Aurten, berritasuna dago ekitaldien zerrendarekin: orain arte, liburuxka egin da, baina aurten, formatu txikiago eta erabilgarriagoa hautatu du Jai Batzordeak jaietan zer dagoen azaltzeko. Herriko komertzio eta toki publikoetan utzi dituzte, antxotarrek har ditzaten.

Hankaz gora dago Antxo. Jaiekin, ziur, beste era batera ikusten dituztela obrak barrutiko biztanleek. ✕



lazko bertso sarioan, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Haritz Casabal. **HITZA**

Goi mailako bertsolaritza plaza da Antxokoa

U. ETXEBESTE ANTZO

Aurten hamazazpigarrenez, sanferminetako bertso saioa antolatu du Mimos tabernak. Establezimenduaren ondoan jarriko duten oholtzan izango dira uztailearen 8an (larunbata), 19:00etatik aurrera, Alaia Martin, Amets Arzallus, Andoni Egaña eta Nerea Ibarzabal bertsolariak. Haiei gaiak, ohikoa den moduan, Haritz Casabal bertsolari antxotarrak emango dizkie. Iazko saioan ere bertsolari horiek izan ziren jada goi mailako plaza bihurtu denean.

2007an egin zuten Mimosekoek lehen saioa, betiere Casabalen laguntzarekin. Orduko hartan ikusi zuten Antxoko festetan 1993tik ez zela bertso saio formalik egin, eta horiek berres-

kuratzea izan zen euren asmoa. Hasieran zortzi bertsolari hasi ziren etortzen sanferminetako saioetara, baina urteak pasa ahala seikoak eta gerora lauokak izatera pasatu ziren emanaldiak. «Nire ustez, lauokoa, bertsolarientzako formatu onena da jaietako saio baterako», zehaztu du Casabalek.

Antxotarraren ustez, ekitaldiak «solera» hartu du, «bertso zirkuituen barruan dagoela esan daiteke». Bertsolarien artean, asko eta asko izan dira barrutiko saioan izan direnak, baina bereziki bat aipatu dute antolatzaileek: hamazazpi ekitaldietatik, hamaseitan izan da Andoni Egaña.

Antxon bakarrik ez, eskualdean eta Gipuzkoan izena egin duen saioa da Mimos tabernak antolatzen duena. Festa testuinguruan izanda, gainera, bertsolariek txantxa eta umore ukituko sormen asko plazaratzen dituzte. Antxo ez da BEC edo Nafarroa Arena, baina bertsolaritzarekin sanferminetan duen harremanak indarrez jarraitzen du. ✕


Limpiezas profesionalak
 943 260 860
Gora Sanferminak!
 Txatxamendi kalea 43, 110 poligonoa. Lezo
info@limpiezastxindoki.com
www.limpiezastxindoki.com


San Ferminetako menu berezia
Kontsultatu hemen:

MIMOS TABERNA
Gure Zumardia. 20110 Pasai Antxo. 943 24 90 23  @mimosantxo



GAZTE EGUNA

Uztailaren 6an. Sanferminen lehen orduetan gazteek eurenak egingo dituzte obrarik gabe dauden plazak, Gazte Egunean. Eguerdian poteoa egingo dute, 15:00etan bazkaria, eta ondoren jolasak.



BURUHANDIAK

Egunero. Haurrek egunero dute erraldoi eta buruhandiekin gozatzeko aukera Jaien lehen egunean arratsaldean dira (20:15), eta gainontzekoetan 13:00etan. Kultur Etxetik aterako dira.



**EGITARAU
OSOA
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda

PROPOSAMENAK



DANBORRADAK

Hegoi Belategi

Uztailaren 7an eta 8an. Hiru danborrada, oso jendetsuak, izan ohi dira sanferminetan. Aurtengoak, honakoak: haurrena uztailaren 7an 18:00etan; helduena San Fermin Eguneko 00:00etan, eta Basari elkartearena uztailaren 8ko 20:30ean.



FAMILIA JOLASAK

Alaine Aranburu

Uztailaren 8an, 12:00etan. Haurrek eta gurasoek elkar eragiteko duten aukera bakarrenetakoa Euskal Jaiaren barruko familia jolasak izaten dira. Sanferminetako larunbatarekin egingo dituzte aurtien ere Biteri plazan, eta ondoren, bazkaria.



DONIMAG argazkiak Eskalantegi 30, 20017 - PASAIA 943 528113 -www.donimag.com



ZUREA DA HITZA



Egilea: Igauri Lopetegi Amostegi.
Doinua: ‘Naparruatik ardo karraio A’

Kantineroei

1. Aurrera egin dezan denborak ez baitu behar baimenik, ezer berririk aurkitzen zail da, aurreko bat ez duenik. Txirritak bertso batzuk jarrita trenbide bati lehenik, aurrera doan beste zerbaiti jarri nahi nizkioke nik.



Pedro Berrospe, al fronto, primer e unico cantinero del Alarde.

Cantineras...cantinero, ¿Por qué no?

Una vez en la historia del Alarde, la cantinera ha sido sustituida por un cantinero. En el año 1961, la compañía de la República Independiente de Behobia, sustituyó la ausencia de la cantinera Juani Echeverría con Pedro Berrospe, único cantinero hasta la actualidad en la historia del Alarde. Magalde reflexiona en el siguiente artículo sobre los imprevistos sancionadores.

Como todo irunés sabe, el Alarde está sujeto de sanciones que de una manera u otra, van formando parte de la historia del Alarde irundarra y por lo tanto de la misma ciudad.

Por ejemplo, hablar de San Marcial, el Alarde, y no recordar a Pedro, Patxo, Mendibil, Echeverría, Eusebio "Kara", e incluso del mismo Luciano es casi inevitable.

Pero este no es el caso que hoy nos ocupa, hoy volvemos a hablar sobre las cantineras que año tras año adunan nuestro Alarde, en forma de elección, la falta de previsión para una emergencia por enfermedad u otra causa.

Algunas compañías tienen supuesto el problema y no precisamente de hoy, sino desde hace algunos años, tal y como es ejemplo la compañía de la República Independiente de Behobia.

Entre los componentes de dicha

La emergencia surgió en el año 1961, en el día de la tarde, cuando a las seis en punto suena en la plaza de Urkamillo, el lugar de marcha y el Alarde comienza a su segunda parte, estallando la calle Contraste, calle poco frecuentada, salvo hoy por los que visitan el bar Haino o los que están hacia las necesidades básicas desde hace pocos años en esta calle. Motor El-karraio o Irungo Enskál Kroaká, pero antes del lugar de donde salen los embolados en listas sancionadoras precisamente del lugar que más tarde otro personaje desapareció pero muy querido en aquel Irón Andino guardaba su caballo y el carro, algunos, participaron al Alarde los haceros, tamborada, banda, caballería, comandante y... la primera compañía de Behobia.

La cantinera era Juani Echeverría Bastón y los que aparecen en la fotografía, como se puede comprobar con muy buen humor, Segundo Olazabal, Unzard Matilla, Indro Zuzarraga, José Ribera, José Gabriel Ondoa, y J. Larraza "Saitia".

Después de veintitrés años, ¿se podrá saber, si es cierto que se le rompió el tatico de la botá a la cantinera?

2. Mila bederatziehun eta hirurogeita batean, alardea ez zen oso arrunt izan Irungo partean. Istorioa nahiz gelditu den ezkutatua lurpean, antzekotasun bat berpiztu da handikan orain artean. izan omen ziren!

3. Goiz hartan beti bezala joan zen desfilean jende pila. Bazkalorduan hasi omen zen arratsaldeko nahaspila: gizonik ezin hasi liteke edatekoaren bila, Kantinera bat husten ari zen aldiro ardo botila.

4. Behobiako Errepublikan Independentean iaio, eginez Juani Etxeberria zurrutetik hainbat saio. Arratsaldeko desfilerantz joan ziren, zer arraio! Ezin pausoa egoki segi, mozkorra bere garraio.

5. Musika hasi, formatu eta... kantinera non ote da? Galdu zen eta nor ipiniko hutsunea betetzera? Soldadu bat jarri zen orduan, hau ere mozkor antzera. «Lehengo hura bezain ederra da oraingo kantinera!».

6. Eskuan hartu zuen zapia, abanikotzat on ona. Nahiz eta falta zuen moñoa, pololoak eta gona, zein ondo pasa zuen oraindik oroitzen zaigu amoña: Pedro Berrospe bilakatu zen Behobiako moñoña!


7. Gizon abila zen kantinero atera zen maisuari: egur gehiegi botatzen zaio gaur aspaldiko suari. Lehen paisaia soila zena gaur begiratzen dugu adi. Garai batean merke zen baina gaur balio du ugari.

8. Bi mila eta hogeita hiru bolbora dator gainezka Antxon Jauregi izango baita Kantinera bai, ez neska. Behin egin bazen gaur arazorik ez dugu izango, ezta? Jaitan nahieran parte hartzea baino gauza hoberik ez da.

9. Duela ia hogeita hamar urteko bidetik segi! Helmugaraino konpainia hau agudo ailega bedi. Hirurogei bat urte tartean, kantineroak, a ze bi! Gogoan Pedro Berrospe hura, aurrera, Antxon Jauregi!

Irunabar Irungo Bertsoaren Bilgunearen eta HITZAREN arteko elkarlanaren emaitza da honakoa. ‘Zurea da hitza’ atal hau Oarsoaldeko eta Bidasoko eragileei zabalik dago.

**HITZ
GEZIDUNAK**



Lehiaketan parte hartzeko, bidali hitz gezidunak osaturik 688 77 07 52 zenbakira whatsapp bidez (argazkia atxikituz), denborapasakobh @hitza.eus helbidera (gaian 'denbora-pasak zozketa' jarrita) edo OARSO BIDASOKO HITZAKO bulegora (Irun kalea 8, Errenteria-Orereta) eramanda. Epe muga: datorren asteazkeneko 12:00ak arte jasotako orrialdeak izango dira onartuak.

◆ Deitura	▼	Txori bidaia-riak	▼	Banandu, bereizi	▼	Idorra, antzua	▼	Mehea, meharra	▼
◆ Izena		Txori kantaria		103		Jainko egiptoarra		Bokal biribila	
Laidoak	▶							Tona, labur-labur	▶
Gizon izena								Ituna, hitzarmena	
Aberas-tasuna	▼	Neurria	▶			Bururatu	▶		▼
Emakume izena		Barne organoak				Txakur			
▶				Optimista	▶				
				Ipar EHN, ispilu					
Pl., antzerki mota	▶					Ez emea	▶		
Behar den uean						Lehenengo letra			Benetan
▶						Kanpo, landa	▶		
						Bokal errepikatua		Sarrera	▶
						... sua iragartzen du			▼
Bizkarrezur-reko hezurra	▶					Urola Kosta	▶	Zilarra	▶
Akuri						Nasa, moila		Rubidioa	
▶									
		Pl., baratze-ko landarea	▶			Arte, antze	▶		
		Herri hizke- ran, zer				Errepikatuz, gorotza			
Herri	▶								
Xake jokalaria						Amaiera	▶		
▶						Kontso-nantea			
								Lehenengo eta azkeneko letrak	▶

MAILAZ MAILA

Mailaz maila hizki bakar bat aldatuta, 8 urratsetan iritsiko zara Lezoko KABITE baserritik udalerrri bereko URALDE bserrira

- 1.- Lezoko baserria
- 2.- Hutsegite, hoben
- 3.- Uretan bigundu
- 4.- Errenteriako auzoa
- 5.- Barrua, barrunbea
- 6.- Irria
- 7.- Harri beltza
- 8.- Irunen, ekainaren 30ean
- 9.- Lezoko baserria

K	A	B	I	T	E
U	R	A	L	D	E

**EKAINAK 23ko
ASTEKARIKO
DENBORAPASEN
ERANTZUNAK**

8	1	5	6	7	3	2	4	9
6	9	2	5	4	8	7	3	1
3	7	4	2	1	9	5	6	8
4	6	7	3	9	5	1	8	2
5	8	1	4	6	2	9	7	3
2	3	9	7	8	1	4	5	6
7	4	8	1	2	6	3	9	5
1	5	6	9	3	7	8	2	4
9	2	3	8	5	4	6	1	7

SUDOKU

■	■	■	■	B	■	A	■	B	■	E	■	I
■	■	■	F	E	I	J	O	O	■	P	O	Z
■	■	■	■	I	G	E	L	T	S	E	R	O
■	A	■	A	R	O	A	■	E	I	■	E	Z
I	D	O	I	A	■	K	A	R	■	B	A	T
■	A	K	A	T	S	■	D	E	Z	A	K	E
A	B	E	R	E	■	A	N	D	E	R	■	A
■	A	R	A	G	O	I	■	U	M	E	A	■
I	K	■	L	I	R	A	I	N	A	■	B	E
■	I	N	D	A	R	■	K	A	I	S	E	R
P	A	U	E	■	I	R	A	K	A	S	L	E



DENBORA-PASAK

ASTEKO SARIA

'MUGEN GAINDI' POLTSA ETA 'BIHOTZEAN GILTZA' TERMOA

HITZAretzat Ane Zufiarre Seijok eta Izaro Mariezkurrenak diseinatutako poltza eta termoa



AURREKO ASTEKO SARIDUNA ENEKO IBARGUREN ELUSTONDO

LABORE TXINGUDIREN KAXA
Labore Txingudiren produktuez osaturiko produktuen kaxa
www.laboretxingudi.eus

HILABETEKO ZOZKETA

61



- ENEKO IBARGUREN ELUSTONDO
- JON KORTAJARENA RUBIO

MEDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera.
HITZA jarriko da harremanetan bonoa eskuratzeko.

MEDEXA
Tel.: 688 85 62 83
www.mendexapark.com

62



- NORA ESTENSORO SAN MARTIN
- KARMELE FERNANDEZ BOGA

URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera.
Aurrez deitu museora. Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.

Aranzadi Zientzi Elkarte
Orueta 7 - GAUTEGIZ ARTEAGA
Tel.: 946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org

63



- AINHOA ALZA ERRAZKIN
- ENEKO OIARTZABAL GERRIKO

BBK KARPIN ABENTURA FAUNAREN BABES ZENTROA

Bi lagunentzako bina sarrera.
Aurrez idatzi infokarpin@gmail.com
postara: bisita eguna eta saridunaren izen-abizenak jarriz eta gonbidapena jasoko duzu.
Hiru hilabeteko epea saria erabiltzeko.

KARRANTZA
Tel.: 626 62 22 45
infokarpin@gmail.com

Harpidedun txartela erakutsi behar da.

Zozketetan parte hartzeko egin zaitez HITZAKIDE.....

Nola? 943 34 03 30 zenbakira deituaz edo sartu oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan edo bidaso.hitza.eus/hitzakide/izan helbideetan.

MERKEALDIA

2MÓ 79€

LEHEN ~~99€~~

GRADUATUAK



R.P.S. 91/20
Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak

DONOSTIA
Jose M^a Sert 4 - ANTIGUO
Tel.: 943 14 28 17



DONOSTIA
C/ Nueva 15 - GROS
Tel.: 943 32 66 49



ERRETERIA
Koldo Mitxelena 7
Tel.: 943 51 78 11



IRUN
Mendibil M.G.
Tel.: 943 63 99 01



MULTIÓPTICAS